


- 8/ Bestiak izango du
oillo edo katu,
motibo txikiagatik
aguro kejatu,
gauza utsagatikan
gerra bat formatu,
projimuen tokian
Luzifer amatu.
- 9/ Besteak berriz dio:
aldeko gizona
ori zeok, mutillak,
aparaju ona,
etzalo damututzen
tabernan egona,
ardo truke saltzen du
andrearen gona.
- 10/ Besteak berriz dio:
aldeko atsuak
maiz egiten dizkigu
azio faltsuak,
danok dirade oek
gezurti osuak,
enredadore eta
fastidiosuak.
- 11/ Batian beia dala
bestian ardia,
gerra bizian dabil
mundurik erdia,
mingaiñaz egiten da
zenbat pikardia,
geroko oroipenak
jarri bear dira.
- 12/ Batak biatz txikian
ikutzen badio,
besteak aunditikan
orzka egingo dio,
parian pasatzian
beltz eta serio
asko kondenatzen da
gauza ori medio.
- 13/ Jauna tribunalera
bear degu deitu,
merezi dan moduan
juzgatuko gaitu,
grifia oiek bakoitzak
uzten ezpaditu
denpora joan da gero
ezin erremeditu.
- 14/ Eskandalu guziak
utzi alde batera,
saiatu bear degu
alkar amatzera,
bestela danok goaz
anima galtzera,
infernuaren truke
zerua saltzera.
- 15/ Konsidera dezagun
kontuak ateriaz
egunero itzegin
Birjifia Mariaz,
ezin bizi gindezke
bakoitza beriaz,
Jauna erruki bedi
gure mixeriaz.

Gezaltzako Aitona.

Arantzazu'ko Euskaltzaleen Biltzarrea



Seriedade ta egokitasun koxkorra antzematen zion Joan Zulaika-k, ta bere arrazoiak izango ditu orretarako, Euskaltzaindia-k eraturik Arantzazu-n

egindako euskaltzaleen biltzarreari. Azillaren 10-eko ZERUKO ARGIA-n, 37-garrenean, ala idazten du. Ni bat nator bere kritika argi onetan esaten

dituen zenbait gauzekin, baiña ez guztiakin. Ez dut uste onelako billeretan erri xeheak, parte aundia artu lezakeanik. Erri xehea ez doa onelako biltzarretara. Oso bestelakoetara du joera erri deserritu onek, norbaiten petralkeriagatik. Ez nuke erria kulpatu nai, baiña ez nizkioke onelako billeretako atea irikiko edozeñi. Nolanaiok demokraziak ez dira onak, eta izan diteke au demoniokrazia. Emen, nunai ere berdintsu, botoa iritzia daukanak eman dezake. Orregatik gaude iritziauden alde. Boto koalitatiboa eskatu nai badugu, ordea, zeinek eman dezake gure artean?... Ia denok gaituzute "erri" emen, eta benetako erria maixu.

Billera moduen martxa aldatu nai izan ezik, ongi daudela esango nuke. Euskaldunoi, auxe erakusten digu, edo erakutsi nai digu beinepein, kondairak. Erri deitzen den dena ezpaita erri, ezpaita populu. Zer den orduan? Gizajo galanta... Erremedioa eskuetan daukatenak erremediatzen ez badute.

Alare, berriro diot, Zulaika-ren artikuloko arrazoi pusketa ederra daukala.

Euskal aldizkarietan billera onetzaz jardun diran eskero, emen ekifiatik begiratuko diogu. Txokoren batzuetan geldituko gera miazten, bakarrik.

Pozgarri da aibeste euskaltzale elkarrekin ikustea. Jakintsurik ezta izango asko, bearbada, gure artean, baiña maitatzen dakitenak bai. Ta gizozaren adimena pospolo bat besterik ez tala gogoratzen badugu, ta biotza, berriz, dinamita koskor ikaragarria, ezta ain bekozko agiri gure etorkizuna.


Billeren maiburutza Luis Mitxelena berdinga-beak eraman bazuen ere, asiera Euskaltzaindiaren zuzentzaileak eman zion, alegia, Lojendio jaunak, berealaxe burua Mitxelena-ri eskeifirik, berak aurreneko istudioari ekiteko. Mendiburu ta Kardaberaz-en gainean zuen gaia, ta bereziki bion lesikoaz. Bide onetatik, lan interesgarriak irakurri ziren, Oen artean batzuek, ta bikain askoak, nabarmendu nai nituzke: erriko euskera aztertzen zigtuenak, Goikoetxea (jesuita) Azpiroz, Bordari, Aita Berriatua...

Zerbait jakin nai duten denak errian billa ta billa dabiltzan birtartean, ez dakit nik —edo gelegi dakit— zeñiek sartu dion kasooan erriari euskerrak ez dakiela, euskera txarra duela. Tolosarrak ez beste geienak uste orretakoak baitira. Ala galdetzen diote bati askotan (Unamuno-ren "edozein bat" triste orri) zailla al den euskeraz idaztea, eskribitzea.

Azkenean prejuizio kaltegarri oek denak birrindu ta suntsitu direla pentsa genezake. Ba-goaz erriari urbiltzen, Arantzazu-ko biltzarrean agiri zenez. Ari gera demokratizatzen, sentidu onean. Hegel bera baiño idealistago gifañok ari gera errealdadeak alkateak (gure teoriak) baiño estimatzenago. Poztu bedi erri jatorra.

Bearbada, bizi ahal izateko etsaiak derrigorreko direla-ta, asmatu egin genituen etsaiok. Baiña Unamuno-ren Kijoteri bezelaxe, egiazkoak suertatu zaizkigu errotak. Orduan zalaparta soifur latza ta anka jokua! Urrengoan, modu seguruagoa zelako, artaldeekin asarretu gifañ, erri anonimoarekin, ta an ensaiatu gera. Lozorrotik esnatzen, alare, geure azienda ondatu dugularik aurkitzen gera.

Euskeraren bizitza-larrea, *espacio vital* delakoa, jatorzen eta zabaltzen doa. Goitik beherako koor-denada xuxen markatu bada, —alegia, jakintsuak erriari ikastea— zearkakoa ere asi baita, arrastoa seiñalatzen. Ta bide au ekarri aundikoa izan dite-



ke. Modu onetan bai, konforme nengoke Zulaikarekin, erriak boto bitarteko au geroz eta geiago euki bear du. Bestela majo ari gera oilloak perrazten.

Erriak ez du bere inportantziaren konzientziarik. Orregatik da goragarriago Sor Maria Milagrosa, Mondragoe-ko Inmaculada Concepción kolejioko mojarren erabakia. Moja onek, aien eskolan umeai euskera erakutsi nai lieke. Bene benetan milagrosa da moja auxe, Jainkoaren graziarekin: zegoen egoeran zegoela, euskeraren alde lanegiteko konzientzia argitzen asmatu duelako. Moja bat erriaren apur bat baita, lorea. Ta gure errian, denok dakigu nola dabillen gizarte-morala milla narras-keriekin zilipurdika. Batzu batzuen zitalkeria kausante bazterrak estaltzen dituen nahasmentu onetan moja batek egiazko jokabidearen argia piztuko zion sukarrria, pedernala topatu du. Berriz, eta amar milla aldiz esan naiko nuke, mojak erria direla, erri koalifikatua, baiña erri, eginkizun onetan.

Perretxikuak berekasa sortzen badira, ez ala pentsamentua. Orregatik irizten diot ain miraritsu Maria Milagrosa aizporen euskerarekiko konzientziari. Karreradun aibestek egin ez dutena, eskolatu geienak ezin (?) dutena egin du berak. Ia orain, arek eskatzen zuen LAGUNTASUNA EMATEN DIOGUN GUK. Beste mirari bat bearko litzake. Ortxe-ortxe...

Lan oetan, erriaren errepresentateak ba-ziren: nafar, bizkaitar, gipuzkoar, kostalde naiz goialdeko. Literatura aztertzen zutenak ere. "Anaiak izan eta bizi bi alderdi", alaxe bizi geranon andikaldekoak, alegia, "eskualdunak" etzuten zerikusirik nunbait billera onetan. Egindakoak, patxaran jarrita, irakurtzea izango ezpada... Loiola-n izango al dira.

Urrengo urteko billera izango da aitatu dudan Loiola-koa. Emengoa ongi atera bazen, biltzarreok geroz ebeagotzen joango direla espero dugu. Euskaltzaleen kontu dago datorrena mailla altuagora altxatzea.

Orrela joango da euskeraren bapora, barkua, piratai igesi, "ur baltzean", itsaso aundian, aizearen kontra naiz alde, beti aurrera, boga urrutira... Barku onen kapillau, jakifia, Aita Imanol Berriatua izango da.

JOSE AZURMENDI.